

Another Kind of Language:
Dedicated to Andrei Tarkovsky
2 x CD-R and/or www.and-oar.org 2003

artistak: michael northam, jon tulchin, yannick dauby, dale lloyd,
john hudak, kiyoshi mizutani, rsundin, .v.v., magali babin, duul_drv,
josh russell, phillip pietruschka, sawako, logoplasm.

Ez da hilabete aunitz pasatu lagun baten bidez Andrei Tarkovskiyren *Nostalghia* filma ikusi ahal izan nuela. Geroztik, harekin gogoratze-rakoan, irudi bakarra dut gogoan. Pertsonaia nagusia, kandela eskuan, erakusten duen travelling amaigabea. Hutsa bezain betea den irudia. Ixila bezain ozena. Orduan ulertu nuen zer den hizkuntza berri bat sortzea, bertzelako hizkuntza bat sortzea. Andrei Tarkovsky (1932-1986) zinemagile errusiarrak utzitako ondareak zinemaren historian egin den artelan eder eta garrantzitsuenetako bat izatea lortu badu ere, argi dago, gaurko egunetik ikusita behintzat, ez duela ikusle gehienen onespena izan. Baina bere oinatzek, bere arrastoek tinko irauten dute oraindik artegintzaren bide bazterretan, eta ez bakarrik zinemagintzaren munduan. and/oar label diskografiko iparramerikarrak hori izan du xede, musika lan eder hau osatzerakoan, alde batetik, errusiarraren lana omentzeko eta bertetik, haren ondarearen inguruan hausnarketa egiteko. Ederra, kontzeptuan nahiz exekuzioan, lan honek, izenburu beretik hasita, zinemagile errusiarrak bere lanen bitartez lortu zuen gauza ederrenetako bati egiten dio erreferentzia, artearen bitartez hizkuntza berri bat asmatzeari, hain zuzen. Zentzu horretan, Tarkovsky, zinemaren legez, ahalmen hori irudien bitartez islatzeko gai izan bazen, aipatzekoak dira soinuaren edo musikaren inguruan egindako erabile-
rak eta horrek aldi berean bere diskurtsoa osatzeko erakutsitako gaitasuna. Horregatik, solasgai dugun bilduman, musika elektronikoa izan da errusiarraren lana omentzeko aukeratutako prisma, bertzeak bertze musika mota honekin egin zuen lana aitzindaria ere izan baitzen.

“Musika elektronikoa sumatzen dugun momentu berean, alegia, bere egitura nolakoa den ulertzen dugun momentu horretan bertan desagertzeko gai da. Musika instrumentala berriz, hain da arte independentea, ezen film batean sartzeko aise zailagoa bihurtzen baita, eta film beraren zati organiko bihurtzen da.”

Tarkovskiyren premisa hauek ez daude gaur egungo musika elektronikoa esperimentalaren eta minimalistaren filosofiatik hain urrun (sortzaile guztiak batzeko gai den filosofiarik badago), lan hau osatzen duten artista gehienen kasuan, behintzat. Paisajista sonoroen, elektroakustikaren eta soinu esperimendazio ororen ondorengoak, azken hamarkadotan hainbat musikaririk hiztegi berri bezain ezaguna erabiliz, argi eta garbi erakutsi du hizkuntza berriak bilatzeko grina, Francisco Lopez, horren adibide. Disko bikoitz honetan bada, orain aipatutakoaren 14 adibide biltzen dira, nazioarteko 14 artista, bakoitza Tarkovskiyren film batean oinarritu baino inspiratuta, 14 pieza osatu dituztenak. Bakoitzak bere modura egin dio erreferentzia filmei: batzuek esplizituki filmeko momentuak soinu bidez (inoiz ez hitz eginez) iradoki dituzte, eta bertze batzuek, berriz, zuzenean filmen bidez jasotako inpresio edo bizipenetan oinarritutako piezak osatu dituzte. Haien artean aipatzekoak dira, beharbada filmetako sentazioak iradokitzeko gaitasuna dela eta, michael northam eta dale lloyd amerikarren, duul_drv kanadiarraren edo logoplasm talde italiarraren saiakera zoragarriak. Atal entzungarriaz gain, Kim Casconeren (ikus zehar 51), eta zinemagile errusiarra omentzen duen www.nostalghia.com web orriko arduraduna den Todd S. Trondsonen testu mamitsuek, zenbait zita tartean, osatzen dute, dudarik gabe, maitasun haundiz egindako lan eder hau.

“Soinu tonua ez bai batean mantendu behar da, entzuten duguna musika, ahots bat edo haizea izan daitekeenean.” • Xabier Erkizia

